

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

Izenburua

Kulturarteko hezkuntza eta inklusioaren erronkak Egia auzoan: eskola-sarean dauden ikasleen pertzepzioak (GrAL 1)

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Pedagogiako GrAL hau "EHezi i3: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde" diziplinarteko proiektu kolektiboaren ale bat da. Egitasmo honen helburu nagusia guztiontzako kalitatezko hezkuntza ahalbidetzea da (4.GIH), honakoa jendarte inklusioa eta genero berdintasuna lortzeko giltzarria delako. Aukera-berdintasuna galarazten eta gizarte-bereizkeria sortzen duen faktoreetako bat eskola-segregazioa da. Fenomeno horren arabera, ikasleak modu desberdinean banatzen dira eskoletan, ezaugarriren baten arabera, adibidez, familien egoera sozioekonomiko, ikaslearen jaiotza-herrialde edo talde etniko-kultural bateko kide izatearen arabera. Eskola segregazio dinamikek, beraz, bazterkeria- eta desintegrazio-fenomenoak sortzen laguntzen dute.

GrAL honen bitartez, eskola segregazioaren gaia aztertu eta kultura-aniztasunaren ikuspegitik egon daitezkeen proposamenak egin nahi dira. Horretarako, Egia auzoko eskola-sarean eskolaratutako haurren pertzepzioa jasoko da modu parte-hartzailean. Hain zuzen ere, kanpo eragileekin batera adostutako erronketan oinarritutako metodologiarekin lan egingo da, eta aintzat hartuko dira auzo mailan inklusioa sustatzeko abiatutako programak ere (Ongi Etorri proiektua edota Familia Laguna, esaterako).

Proiektu honen bidez, Egia auzoko kulturarteko hezkuntza eta inklusio dinamikak hobetzea aurreikusten da; baina badira zeharka erdietsi nahi diren bestelako emaitzak ere. Horien artean, EHezi i3 komunitatea dinamika sozialetan txertatzea, EAEko hezkuntza lege berriarekin irekitako eztabaidan ebidentzietan oinarritutako ekarpenak egitea, eta praktika guneetan berrikuntza pedagogikoa gauzatzeko aukera izatea.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

Pedagogia graduko ikaslea

Campusa

Gipuzkoa

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

Titulazioa

Pedagogian Gradua

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Euskara

Irakasle arduraduna

Alba Madinabeitia Ezkurra

Posta elektronikoa

alba.madinabeitia@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

EHezi i3: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde

CBL proiektuaren webgunea